

Azorak familia bat kaleratu nahi du Grosen

MAIDER ARTOLA :: 14/03/2025

Putre funtsak alokairua igo eta mantentze lanak alde batera utzi ditu, Isaac Lagos eta bere familia etxebizitza uztera behartzeko asmoarekin.

Isaac Lagos, Gros auzoko bizilaguna, etxegabetua izateko arriskuan dago, Ategorrieta hiribideko 37 zenbakiko etxebizitzaren errentaren ordainketan atzeratu egin zen hilabeteko itzulketa egin zuelako bere herrialdetik, Hondurastik, itzultzeko diru hori behar zuelako. Saretzek dionez, “Isaacen akatsa baliatu dute, kaleratzeko. Baina guk argudiatzen dugu kaleratzearen arrazoia dela Isaac dela alokairuaren greba partziala egiten ari zen bizilagunetako bat, ez ordaintzeagatik aseguru ordaintzeari uko eginez”.

Otsailaren 3an, inolako aurreabisurik gabe, etxegabetzearen jakinarazpena jaso zuen, etxebizitzaren jabea den Azora funtsaren partetik. “Betidanik prest egon naiz ordaintzeko, baina ez nituen kargu gehigarriak ordaindu ahal izan, eta, azkenean, etxea utzi behar izango dut”, ondorioztatu du, porrota eta ikaskuntza nahasten dituen emozioekin.

Saretxe Groseko etxebizitza sindikatuaren laguntzarekin, bere eskubideak defendatzeko saiakerak egin ditu, baina afera epaitegietara iritsi da, eta, asteleheneko epaiketan, epaileak Azora putre funtsaren alde egin zuen. Orain, Lagosek apirilaren 9ra arteko epea du errekurtsioa aurkezteko, erabakia berrikusteko eskatuz. Pisu honetan, bere emaztearekin, 8 urteko semearekin, 19 urteko semeordearekin eta koinatarekin bizi da. “Argi daukagu honek ez digula eragotziko guri eta gainontzeko auzokideei, ahal dugun neurrian, borrokan jarraitzea”, dio Jon Basterra Saretzeko kideak.

Prozesu luzea

Hasiera batean, baldintza egokietan sartu zen pisuan, baina Azora putre funtsak Inmobiliaria Vascongada higiezin agentzia erosi eta etxearen kudeaketa bere gain hartu zuenetik —auzoko beste etxe askorekin gauza bera gertatu da—, alokairua igo diote eta baldintzak gogortu dituzte, Lagosek eta Basterrak diotenez. Era berean, salatu dute egoera larriagotu egin dela azkenaldian, etxebizitzaren mantentze lanak ere ez dituztelako egin. Lagosek berak ordaindu behar izan ditu hainbat konponketa, hala nola, galdararena, nahiz eta hori enpresaren ardura izan beharko litzatekeen. Gainera, etxebizitzak hezetasun arazo larriak ditu, eta horrek bere familiaren osasunean ere eragina izan du, Lagosek azaldu duenez.

Sindikatuaren arabera, Lagosena ez da auzoko kasu bakarra, eta salatu dute Azorak eta beste “funts espekulatzailerak” batzuek etxebizitzarekin negozioa egitea baino ez dutela helburu, “pertsonen bizi baldintzak kontuan hartu gabe”. “Higiezin funts hauek gure auzoak hustu eta aberasteko baino ez daude hemen. Hau ez da kasualitatea, estrategia bat da”, salatu du Basterrak. Hain zuzen ere, Azorak kale bereko bizilagun batzuek kaleratu zituen indarrez 2022an.

Lagosek oraindik itxaropena du, baina argi dauka borroka ez dela berea soilik. “Nire egoera

ez da kasu isolatua. Auzokideok elkarrekin borrokatu behar dugu etxebizitza duin bat defendatzeko”, dio, irmoki.

Azorak maizter bat kaleratuko du Grosen - Irutxuloko Hitza : Irutxuloko Hitza

<https://eh.lahaine.org/azorak-familia-bat-kaleratu-nahi>